

Erosketak egitera goaz

- Ez daukagu denbora askorik. Zer erosi nahi duzue?
- Nik kirol-zapatila batzuk erosi nahi ditut. Kirol-dendan oso prezio onean daude.
- Nik unibertsitaterako materiala erosi nahi dut.
- Bada, nik tableta bat begiratu nahi dut, eskaintza bereziak daude *Gailunet* dendan. A, eta ogia eraman behar dut etxera.
- Ados. Bakoitzak nahi dituen gauzak erosi eta gero, pizza bat hartuko dugu *Euskal pizzan*, etxean afaltzeko?
- Ez, nik ez dut pizza afaldu nahi, nik ogitartekoa nahi dut.
- Bada, nik bai. Nik Margarita pizza bat nahi dut.
- Ados. Zortzietan elkartuko gara hemen, eta erosiko ditugu. Ados?
- Primeran!